

LAUDATO SI'

“Laudato si, mi Signore” – “Goretsia Zu, nire Jauna”. Hauxe da Frantzisko Aita Santuaren Entziklika barria. Ederra, bikaina, mamitsua, indartsua! Eta gainera, eskerrak Euskadiko Erljio-soen Erakundeari, euskeratuta ere badaukagu. Beste horrenbeste egin dabe Benedikto XVI.ren Entziklika ederrekin ere. Zorionak CONFER Eukadiri.

San Frantzisko Asiskoari jarraituz, Aita Santuak guztion etxe bezala hartzen dau lurra. Gehiago oraindino, “elkarrekin garen arrebaren antzekoa dela guretzat, eta besoetan hartzen gaituen ama onaren antzekoa”.

Baina txarrena da, gure ama lurra gaixorik daukagula. Frantzisko Aita Santuaren asmo nagusia danona dan etxea zaintzea. Dardaraz jarten gaitu beraren diagnostiko larriak: “Gure arreba hau oihuka ari da Jainkoak lur honetan jarri dituen ondasunak gaizki eta desegoki erabiliz egiten diogun kalteagatik. Beraren jabe eta menderatzaile bagina bezala hazi gara, bortxaz eta zuzengabe erabiltzeko eskubidea bagenu bezala. Indarkeria nabari da bekatuaren zauria daraman giza bihotzean, eta hori ageri da lurrean, urean, airean, eta bizidunengan ikusten dugun gaixotasunean ere. Horregatik, zapaldua eta hondatua dagoen, eta erdiminetan intzirika dagoen” (Erm 8, 22) gure lur hau, pobrerik baztertuenen eta gaizki erabiliaren artean aurkitzen da. Ahaztu egiten zaigu, lur garela gu geu ere (ik, Has, 2, 7). Gure gorputzak planetaren osagai



berberak ditu; bertako aireak ematen digu arnasa eta bertako urak biziberritu eta indartzen gaitu”.

Itxaropentsu jatorku Aita Santua. Oso-osoan sinisten dau Jaungoikoak ez gaituala eskutik utziko eta gizadia gai dala gauzak beste modu batera egiteko: “Denona dugun etxea zaintzeko erronka larriak giza familia osoa elkartzeko kezka du berekin, garapen iraunkor eta oso-osoan egin ahal izateko, badakigulako gauzak alda daitezkeela. Kreatzaileak ez gaitu eskutik uzten; bere maitasun-asmoan ez du inoiz atzera egin, ez da damu gu sortu izanaz. Gizadia gai da oraindik ere, denona dugun etxe hau eraikitzen elkarrekin egiteko”.

Entziklikaren hari nagusia

Sei kapitulu ederretan saiatuko da Frantzisko Aita Santua “gure ama-lurraren” zauriak sendatzeko erremedioak aurkezten. Nahiz eta kapitulu bakoitzak bere gai zehatza euki, Entziklika osoa, hasieratik azkeneraino, hari sendo batek zeharkatzen dau. Esaterako: “Pobreen eta planetaren ahultasunaren arteko lotura estua, munduan dena bata bestearekin lotua dagoenaren uste sendoa, eredu berriaren eta teknologiatik sortzen diren botere-formen kritika, ekonomia eta aurrerapena ulertzeko beste era batzuk bilatzera egiten den deia, sor-kari bakoitzak duen balio propioa, ekologiak duen esanahi gizatiarra, eztabaida egiazkoak eta zuzenak egin beharra, nazio-arteko eta lekuko politikaren erantzun astuna, baztertzearen kultura eta modu berri bateko bizitza-proposamena”.

Ez daukat zalantzarik, Entziklika honek askori lagunduko deuskula begiak zabaltzen eta sentiberatasun handiagoa izaten ingurumena eta natura zaintzeko ardura hartzeko. Problema astunak, ikaragarriak, mingarriak! Hor dagoz kutsadura eta klima aldaketa, uraren arazoa, gizadiaren bizitza kalitatearen hondamena eta degradazio soziala, zuzengabeko desberdintasuna eta abar eta abar.

Egi biribilak Aita Santuarenak. Beste hainbat eta hainbat pasarte ikaragarriren artean, gehien dardaratu nabenak lau honexek izan dira: bata, naturaren hondamenaren eta pobreen arteko lotura, bestea Aita Santuaren umiltasuna Jaungoikoagan sinisten ez dabenen aurrean eta aldi berean agertzen dauan ausardia zientzia eta fedearen arteko alkarrizketa egiteko jarrera eta abiltasuna. Hirugarrena, izadia zaintzeko maitasunez egindako gauza txikien balio zibila eta politikoa. Eta Teresa Lisieuxkoa jarten deusku horren eredu bezala. Eta lau-garrena, Juan Kurutzekoari jarraituz, Sakramentuen ikuspegi kosmiko-mistikoa.

1. Zuzenbako desberdintasun planetarioa

Ama-lurraren hondamena eta pobreen arteko lotura: “Gizakion ingurune eta naturarena biak batera hondatzen dira; beraz, ezin diogu ingurumenaren hondamenari behar bezala erantzun, hondamen gizatiar eta sozialarekin zerikusia duten kausei arreta jarri gabe. Hain zuzen, ingurumenaren eta gizartearen hondamenak planetako ahulenei erasaten die era berezian. Bai bizitza arruntaren ohiko esperientziak bai zientziak bai ikerketak erakusten dute, ingurumeneko eraso guztien ondorioz gogorrenak jende pobreenak jasaten dituela. Gaur egun aitortu beharra daukagu, egiazko planteamendu ekologikoa planteamendu sozial bihurtzen dela beti, ingurumenari buruzko eztabaidak zuzenbidearen argira egin behar direla, lurraren oihurarekin batera behartsuen oihua ere entzuteko.

Behartsuen arazoei erantzuna eman ordez eta beste era bateko munduan pentsatu ordez, zenbaitek ez du jaiotzen murrizketa besterik proposatzen. Ez dira falta garatzeko bidean dauden herrialdeei egindako nazioarteko presioak, laguntza ekonomikoak eskainiz ugalketa osasuntsurako politiken mesedetan. Baina egia izanik ere biztanleria eta eskura ditugun baliabideak desberdin banatuta egoteak eragozpenak sortzen dituela garapenerako eta ingurumenaren erabilera eramangarrirako, aitortu beharra dago demografiaren hazkundera bateragarria dela garapen oso eta solidarioarekin. Horren errua biztanleriaren hazkunderari egoztea, eta ez batzuen kon-



tsumokeria neurrigabe eta selektiboari, arazoak egiaz ez aztertzeke modua da. Gaur egungo banaketa-eredua ontzat ematea du honek helburu; horrela, gutxiengo batek neurrigabe kontsumitzeko eskubidea izango luke, denentzat ezinezkoa izango litzatekeen neurrian, alegia planetak ezin izango balituzke hortik sortuko liratekeen hondakinak jaso ere. Gainera badakigu alferrik galtzen dela ekoizten diren janarien herena gutxi gorabehera; eta bazterrera uzten den janaria pobreen mahaitik lapurtuko balitz bezala da”.

2. Kreazioaren Ebajelioa

Entziklikaren bigarren kapituluak Kreazioaren Ebanjelioari buruz diardu. Kapitulu oso ederra. Hasieratik gustuko egin jat: “Zergatik sartu, borondate honeko persona guztiei zuzendua dagoen idazki honetan, fedeko sinistek aipatuko dituen kapitulua? Badakit politika eta pentsamendu-munduan, uko egiten diotela batzuek indartsu Kreatzailearen ideiarri; edota funtsik gabea iruditzen zaiela. Horrela, ekologia osoaren eta gizadiaren garapen betearren mesedetan erlijioek egin ditzaketek ekarpenak zentzugabeko gauza bezala bazterrera uzteraino ere iristen dira. Beste batzuetan, azpikulturatzat hartzen dira ekarpen horiek eta nolabait ere toleratu behar diren gauzatat. Hala ere, zientzia eta erlijioa errealitatea ezagutzeko era desberdineko hurbilketak direnez, elkarrizketa sakona eta bien tzat onuragarria izan daitekeena egin dezakete.

Krisi ekologikoaren konplexutasuna eta honek dituen era askotako kausak kontun hartzen baditugu, aitortu beharko genuke konponbideak ezin direla iritsi errealitatea modu bakar batean ulertu eta aldatzetik. Beharrezko da beste altxor batzuetara ere jotzea: herrien aberastasun kulturalera, arte eta poesiara, barne-bizitzara eta espiritualtasunera. Hondatu dogun guztia sanotzera eramango gaituen beste ekologia eraiki nahi badugu egiaz, ezin dugu inolako zientzia-adarrik edota

inolako jakintza-motarik bazterrera utzi, ezta erlijioarena ere bere hizkuntza bereziarekin. Gainera, Eliza Katolikoa zabalik dago filosofi pentsaerakin elkarrizketa egiteko eta horrek bide ematen dio fedearen eta arrazoiaren arteko era desberdineko sintesiak egiteko. Arazo sozialei dagokienaz, garbi ikusi daiteke hori Elizaren irakaspen sozialaren garapenean, eta aberaspenen joan behar da gero eta gehiago irakaspen hori erronka berriak kontuan hartuz.

Bestalde, entziklika hau denekin elkarrizketa egiteko zabalik badago ere, eta elkarrekin askatasunerako bideak aurkitzeko, hasieratik adierazi nahi dut, fedeko sinisteez motibazio handiak eskaintzen dizkietela kristauei, baita neurri batean beste fededunei ere, naturaren eta senide ahulenen zaintzarako. Gizaki izate hutsak ingurua zaintzera bultzatzen badie pertsoneri bertan bizi behar dutelako, kristauek, era berezian, aurkitzen dute, beren fedearen alderdi direla kreaioari, naturari eta Kreatzaileari buruzko zereginak. Horregatik, ona da gizdiarentzat eta munduarentzat geure sinisteetatik sortzen diren ekologiaren aldeko jokabideak hobeto ezagutzea”.

3. Maitasun zibila eta politikoa

Maitasunez egindako gauza txikien garrantzia gure ama-lurrarekin dogun senidetasun unibertsala zaintzeko: “Izadia zaintzea, elkarbizitza eta batasun-gaitasuna berekin duen bizitza-estiloaren parte da. Jesusek gogorarazi zigun Jainkoa dugula denok geure Aita, eta horrek senide egiten gaituela. Elkar maitasuna doakoa bakarrik izan daiteke; ezin izan besteak egin duenaren ordain edo egitea espero dugunaren ordain. Horregatik posible da arerioak maitatzea. Doakotasun horrek berak garamatza haizea, eguzkia eta lainoak onartu eta maitatzera, nahiz eta gure kontrolpean egon ez. Horregatik hiz egin dezakegu *anaitasun unibertsalari* buruz.



Beharrezko dugu berriz sentitzea elkarren premia dugula, besteeziko eta munduarekiko erantzukizuna dugula, merezi duela onak eta zintzoak izatea. Hondamen moralean denbora luzea izan dugu, etikaz, ontasunaz, fedez, zintzotasunaz barre eginez; iritsi da garaia, azalekokeria alai horrek ezer gutxi balio izan digula ohartzeko. Gizarteko bizitzaren oinarri ororen suntsipen horrek elkarren aurka jartzen gaitu azkenean; bakoitzak bere interesak defendituz, indarkeria krudeltasunbide berriak sorrarazten ditu eta ingurumenaren egiazko kultura eta zaintzaren garapena galarazten du.

Santa Teresa Lisieuxkoaren ereduak maitasunaren bide xumera gonbidatzen gaitu: hitz adeitsu baten, irrifar baten, bakea eta adiskidetasuna sortzen duen ezaugarri txiki baten aukera alferrik ez galtzera. Ekologia oso-oso eguneroko keinu apalez egina dago, era honetan indarkeriaren, erabiltzearen, egoismoaren logika hausten baitugu. Bitartean, kontsumo

neurrigabearen mundua, aldi berean, bizitza bere era guztietan gaizki erabiltzen duen mundua da.

Elkar zaintzeko keinu txikiz beteriko maitasuna, zibila eta polikoa ere bada, eta agerian jartzen da mundu hobearen aldeko ekintza guztietan. Gizartearekiko maitasuna eta guztion ongiaren aldeko konpromisoa karitatearen gorengo era dira, ez norbanakoen arteko harremanen eragile bakarrik, baita makro-erlazioena ere, esaterako, harreman sozial, ekonomiko eta politikoena. Horregatik, -Elizak ‘maitasunaren zibilizazioa’ proposatu zion munduari. Maitasun soziala egiazko garapeneren giltzarri da gizarteko bizitzan –maila politikoa, ekonomian, kulturean- maitasunari dagokion balioa berriro ematea, giza egintzen arau iraunkor eta gorengo bihurtuz. Testu inguru honetan, eguneroko keinu txikiek duten garrantziarekin batera, maitasun sozialak ingurumenaren hondamena geldiarazi eta gizarte osoan eragina izango duen zaintzaren kultura bultzatuko duten estrategia handietan pentsarazten digu. Norbaitek gizarte-dinamika hauetan besteekin batera parte hartzeko Jainkoak egiten dion deia jasotzen duenean, hori bere espiritualtasunaren zati dela gogoratu beharko du, karitatea bizitzeko era dela, eta horrela heldutasuna iritsi eta santutu egiten dela”.

4. Sakramentuzko ezaugarriak

Juan Kurutzekoarengan ispiratuta, Sakramentuen perspektiba kosmiko-mistikoa azaltzera dator Aita Santua. Ikuspuntu aberatsa eta ederra benetan: “Unibertsoa Jainkoagan garatzen da; berak betetzen du dena. Hortaz, bada mistika hosto batean, bidean, ihintzean, behartsuaren begitarrean. Ideala ez da Jainkoak ariman ari duena aurkitzeko kanpotik barrura igarotzea bakarrik, baizik eta Jainkoa gauza guztietan aurkitzea. San Joan Gurutzekoak irakasten zuen moduan, gauzetan eta munduko bizipenetan dagoen on guztia Jainkoagan dago go-

rengo maila amaigabean, edota, hobeki esanda, esaten diren handitasun hauek guztiak Jainkoa dira'. Ez da munduko gauza mugatuak egiaz jainkozkoak direlako, mistikoak Jainkoaren eta gauza guztien artean dagoen barrengo lotura ezagutzen duelako baizik, eta honela 'gauza guztiak Jainkoa direla sumatzen du'. Mendi baten handitasuna miresten badu, ezin du hori Jainkoagandik banandu, eta berak bizi duen barneko miresmen hori Jainkoagan jarri behar duela konturatzen da: 'Mendiek badituzte goraguneak, ugariak, zabalak, eta ederrak, edo bitxiak, loretsuak eta usaintsuak. Mendi horiek ene Maitea dira niretzat. Bakarleku diren ibarrak geldiak dira, atseginak, freskoak, itzaltsuak, ur gozoz beteak, eta bertako zuhaitzi ugarietan eta txorien kantu gozoan, zentzuari jostaldi eta gozamen ematen diote, lasaitasun eta atsedean hango bakardade eta isiltasunean. Ibar horiek ene Maitea dira niretzat'.



Jainkoak izadia bere gain hartzen duela eta goi-bizitzaren-tzat bitarteko bihurtzen duela adierazteko modu pribilegiatu dira sakramentuak. Kulturaren bidez mundua maila desberdinean besakartzera gonbidatuak gara. Ura, olio, sua, koloreak, beren indar sinboliko guztiarekin onartuak dira eta gorespena deituak. Bedeinkatzen duen eskua Jainkoaren maitasunaren baliabide da eta guri bizitzako bidean laguntzera etorri zen Jesu Kristoren gertutasunaren erakusgarri. Bataiatzean haurren gorputz gainean isurtzen den ura bizi berriaren ezugarri da. Jainkoarekin aurkitu nahi dugunean ez dugu mundutik ihes egiten, ezta izatea ukatzen ere. Hura bereziki suma daiteke ekialdeko kristauen espiritualitatean. Kristau esperientziarentzat, unibertso sorkari guztiek gizon egindako Hitzean aurkitzen dute beren egiazko zentzua, unibertsoaren zati bat bere egin baitu Jainkoaren Semeak, eta bertan txertatu du betiko eraldatzearen ernamuina.

Izakiak Eukaristian aurkitzen dute beren goratze nagusia. Era hautemangarrian azaltzen den grazia, harrigarriro adierazten da, gizon egindako Jainkoa bera, bere sorkariarentzat jaten ematen denean. Gizon egitearen misterio handian, gure barrura iritsi nahi izan zuen Jaunak, materia zati txiki baten bidez. Ez goitik, barrutik baizik, gure munduan bertan aurkitu ahal genezan. Eukaristian iritsia dago, jadanik, gailurra: unibertsoaren bizi-muina baita, maitasuna eta bizi amaigabea gainezka dariona. Eukaristian presente dagoen gizon egindako Semearekin bat eginda, kosmos guztiak eskerrak ematen dizkio Jainkoari. Izan ere, maitasun kosmikoko egintza da, berez, Eukaristia: 'Kosmikoa, bai! Landako eliza bateko aldare txikian ospatzen denean ere, Eukaristia, alde batera. Mundua den aldaren gainean ospatzen baita'. Eukaristiak, zerua eta lurra bartzten ditu, sorkari guztiak besarkatzen ditu eta guztien barnera sartzen da. Jainkoaren eskuz egin den mundua berarengana iristen da gurtza zoriontsu eta betean. Eukaristiako Ogian, 'jainkotzera bideratua dago kreazioa, eztei santuetara, Krea-

tzailearekin berarekin batzera'. Horregatik, argi eta motibazio iturri ere bada Eukaristia ingurumenarekiko gure kezketan, eta diren guztien zaintzaile izatera bideratzen gaitu".

Bi otoitz zirrargarri

LAUDATO SI' entziklika ezin hobea, bi otoitz hunkigarriekin amaitzen dau Frantzisko Aita Santguak. Bata Jaungoiko Kreatzaileagan sinisten dabenak alkarrekin egiteko eta bestea kristauok Jesusi jarraituz kreaziorekiko konpromisoak geureganatzeko. Bi otoitz honeetan nabaritzen da Aita Santuaren barneko kristau mistikaren arima. Baita otoitz gisa entziklikaren ideia nagusienak biltzeko aparteko gaitasuna ere.

a) *Otoitza gure lurraren alde*

Jainko ahalguztiduna,
unibertso osoan
eta sorkaririk txikienean ere presente zaudena,
Zuk samurtasunez inguratzen duzu den guztia,
isur ezazu gugan zeure maitasunaren indarra,
bizitza eta edertasuna zaindu ditzagun.
Bete gaitzazu bakez gainezka,
inori kalterik egin gabe
senide izanez bizi gaitezen.
Behartsuen Jainko,
lagun iezaguzu
Zuretzat hain baliotsuak diren bazterrera utziak
eta munduko ahaztuak berreskuratzen.
Sendatu gure bizitzak
munduaren babesle izan gaitezen,
eta ez hondatzaile,
eta edertasuna erein dezagun
kutsaduraren eta suntsipenaren ordeztu.
Uki ezazu,

behartsuen eta lurraren bizkar
 etekinak besterik bilatzen ez dituztenen bihotza.
 Irakats iezaguzu
 gauza bakoitzaren balioa aurkitzen,
 irakatsi guri harriduraz begiratzen;
 zure argi amaigaberako bidean sorkari guztiekin
 sakonetik lotuak gaudela aitortzen.
 Eskerrak Zuri, egunero gurekin zaudelako.
 Adoretu gaitzazu, arren,
 zuzentasunaren, maitasunaren
 eta bakearen aldeko gure borrokaldian.

b) ***Kristau-otoitza kreazioarekin***

Goretsia Zu, Aita, zeure esku indartsuz
 egin dituzun sorkari guztiekin.
 Zeureak dira,
 eta zure presentzia eta samurtasunez
 beterik daude.
 Goretsia zu.
 Jainkoaren Seme, Jesus,
 zure bidez sortuak dira gauza guztiak.
 Mariaren ama-erraietan sortu zinen,
 lur honetako parte egin zinen,
 eta munduari giza begiekin begiratu zenion.
 Gaur bizirik zaude sorkari bakoitzarengan
 zeure piztuerako aintzaz.
 Goretsia Zu.
 Espiritu Santua, zeure argiz
 Aitaren maitasunera gidatzen duzu mundua
 eta kreazioaren intziriei lagun egiten diezu,
 Zu gure bihotzetan ere bizi zara
 gu ongia egitera bultzatzeko.
 Goretsia Zu.
 Hirutan bakarra zaren Jauna,

maitasun amaigabearen elkarte baliotsu,
irakatsiezaguzu unibertsoaren edertasunean
Zu kontenplätzen;
izan ere, guztia Zutaz mintzo zaigu.
Esnarazi gure goresmena eta esker ona,
sortu duzun izaki bakoitzagatik.
Emaguzu diren guztiekin sakon-sakonetik
bat egiteko grazia.
Maitasuna zaren Jainkoa,
erakutsiezaguzu mundu honetan dugun tokia,
lurreko izaki guztientzat duzun
maitasunaren testigu izan gaitezen;
Zu ez baitzara
izaki horietako bat beraz ere ahazten.
Argi itzazu boterearen eta diruaren jabe direnak
axolagabekeriaren bekatutik alden daitezen,
guztien ongiaren alde egin, ahulak sustatu
eta bizi garen mundu hau zaindu dezaten.

Behartsuek eta lurrak deiadar egiten dute:
Jauna, har gaitzazu zeure indarrez eta zeure argiz,
bizitza oro babesteko, etorkizun hobea prestatzeko,
zuzentasun, bake, maitasun eta edertasunezko
zure Erreinua etor dadin.
Goretsia Zu.
Amen.

A. Olea